

EUSKAL HERRIA 2020 (V) > euskara eta kultura



ENEKO BIDEGAIN

CLAUDE LABAT Irakasle eta Lauburu elkarteko kidea

«Erakunde gehiegi sortu dituzte, eta orain gauzak argitu behar dira»

E. BIDEGAIN
Baiona

Claude Labat Lauburu elkarteko kide eta irakaslea luzaz ibili zen Euskal Kultur Erakundearen eta *Euskal Herria 2010* dinamikan. Gaur egun denak utziak ditu, baina kulturaren inguruko gogoeta aberatsak eskaintzen jarraitzen du, egitura horietatik kanpoko ikuspegitik.

Nolako etorkizuna izan dezake euskal kulturak, hizkuntza galtzen bada?

Euskara pixkanaka-pixkanaka galtzen ari dela oso kezagarria da. Sakonoki lan bat egiten segitu behar dugu. Badirudi dena egina dela hizkuntza horren salbatzeko, sortzen dituzten egitura guztiekin. Baina ez dakit jendeek hori guztia onartzen duten. Euskarazko irakaskuntza garatzeko hartuko diren erabakiak ez dira irakasle guztien gustukoak izanen. Kalapitak sortuko dira.

Ez da arazo bakarra. Beste batzuek merkatura erakartzeko pro-

duktu gisa erabiltzen dute euskal kultura. Hori kulturaren perbertsioa da. Topiko handiak erabiltzen dituzte. Lauburuarekin saltzen dituzten produktuak Korean eta horrela eginak dira. Euskal kulturaren itxuraz baliatzen dira merkantzia helburu soilekin. Herri honen irudi bat saltzen dugu, irudi hori finkatuz. Ez dute kultura horren alde bizia erakusten, baizik eta azken 40 urteetako irudiarekin segitzen dute: etxe zuriak, fandangoa, Luis Mariano eta abar. Maiz, lekuko jendeek irudi hori erabiltzen. Ezagutzen ditut hemengo jendeak turistei erran dietenak Oskorri ez dela euskal musika, baizik eta Luis Mariano dela euskal musika.

Jendea ondareari atxikia dela ageri da. Baina atxikimendu hori ez dea paretaz harretara mugatua?

Jendeek badakite zer den ondarea. Baina ondarearen itxura finkatua eman nahi dute, adibidez arkitekturaren. Ahanzten dugu ondare ima-

terial handia badela, besteak beste kantua. Gastronomía aiseago onartzen da. Ez dugu pentsatzen ondarea etengabe aldatzen dela. Arkitekturaren adibidea hartuko dut. Hori kontuan hartzen bageinu, ez genituzke etxeak zurezko zutabeekin eraikiko, baizik eta material garaikideekin. Baina jendeek, hozberatasunez, nahiago dute ondarearen irudi finkatu horrekin gelditu. Irudiarekin gelditzen gara. Aldiz, beste eremu batzuetan urrunago joateko arazorik ez dugu, kantuan adibidez. Altxarrietan berdin da. Ikea irekiko dute eta onartuko dugu, eta ez dugu inoiz pentsatu euskal Ikea bat sortzea. Hemengo altzari garaikide merkeak behar genituzke, hemengo gazteentzat. Gure ondareaz zinez arduratu bagina, Euskal Erakustokia altzari zaharren ikertzeko gune bihurtuko genuen, eta ez erakusleihofuntziora mugatu. Horrekin batera, beste partaide batzuekin (Merkataritza Ganbera,

«Jendeek, hozberatasunez, nahiago dute ondarearen irudi finkatuarekin gelditu, aldatetak onartu baino»

«Enpresa anitz merkantzia helburu soilekin baliatzen dira euskal kulturaren itxuraz»

adibidez) altzari garaikideak sortzea ikertuko genuen. Ez dugu gehiago lehengo zur lodizko altzarien beharrik, hiriko bizimodura egokitu behar dugu.

Askok mutxikoak dantzatzen dituzte.

Baionako bestetan anitz ikusi ditugu, baina frantsesa mintzo zuten ia denek.

Jende horientzat euskal dantzak ikastea urrunago joateko urrats bat da ala beren euskaltasunaren erakusteko modu bakarra, urrunago joateko gogorik gabe?

Anitzek euskal kultura bizia deskubritu dute dantza horiek ikasiz, dantza horiek herrikoiak direla ikusiz. Ohartu dira dantza adierazpide bat dela. Bistan da, ez da horretan gelditu behar. Euskararengana joatea proposatu behar zaie, eta baita beste adierazpide batzuetara ere. Arazoa da dantza garaikidearen eta herriko dantzen artean haustura handi bat gertatzen ari dela. Euskal kultura bat bada herriarentzat, eta beste bat elitearentzat. Beharbada, dantza garaikideak sortu behar dira publiko zabalarentzat ere.

Dinamika kulturala amateurren bidez lortzen da hein handi batez. Profesionalak ere badira, eta eztabaida bat bada sustatu beharreko kulturari buruz.

Biak behar dira, orekarentzat. Lan profesionalak sortzen dira, ondono amateurren lana badelako. Bien arteko oreka beharrezkoa da. Profesionala den guztiak etengabe aztertuta izan behar du: ea oinarriak errespetatzen diren, zinezkoa den, epe luzekoa izan daitekeen. Euskal profesionalak behar ditugu, kanpotik datozen eta euskal kutsuaren itxura saltzen duten profesionalen pare jartzeko.

Publiko erdaldunarengana eta kanpokoengana joateko, turismoa eta ekitaldi handiak hazten direlako joera dago?

FNAC eta holako etxeek euskal musika gutxi eskaintzen dute. Paris ez da gai euskal arte herrikoari lekuri emateko. Guk behar dit-

gu bultzatu jendeak izaera kultural hori kontuan hartzera. Gaur egun Chimeres antzerki taldearen *Kaukasiar krea*zko borobila bezalako proiektuak bultzatu behar dira. Gauza bera egin daiteke arte plastikoetan. Banaketa zirkuitu handiengana joan behar dea? Zerbait egin behar dugu, bagarela erakusteko. Beharbada Hego Euskal Herriarekin batera egin behar ditugu proiektuak. Gauza oso simpleekin has daiteke. Zergatik ez egin euskal arkeologiari buruzko erakusketa handi bat Parisen, gure herriak iragan handia duela eta gauzak errateko badituela erakusteko? Gure kulturaz ematen duten itxura folklorikoarekin hautsi behar da.

Gaur egungo eragileek ikuspegi hori dute?

Ez dut uste. Euskal kultura kanporen erakutsi nahi dutenek izena baizik ez dute euskaldunik.

Euskarazko kulturak zailtasunak ditu euskaldunengan joateko.

Ipar Euskal Herriko euskaldunak kulturaren itxura atzerakoari atxikiak dira, hein handi batez. Jende haiengana joan behar da, gauza berri eta kalitatekoekin, beste gauza batzuk ere badirela erakutsiz. Hizkuntzaren eta kulturaren arteko haustura bat badago. Anitzentzat euskalduna izateak ez du erran nahi euskal kultura jarraitzen dutenik, nahikoa dute telebistarekin.

Kulturaren eta hizkuntzaren kudeaketa berezi dira, batetik EK Erekin, bestetik EE Prekin. Ona da hori?

Gaur egun egitura gehiegi dago, Euskal Herria 2020, Garapen Kontseilua, EKE, EEP... Labirinto bat da. Gauzak argitu behar dira, eta ikusi behar da nork zer egiten duen eta zertara goazen. Gauzak gero eta nahasiagoak dira. Nago ea helburua ez den erabakiak ez hartzea. Bestalde, EK Eren funtzioa zehaztu behar da berriz. Badirudi aspektu batzuetan mugatzen dela, ikuskizunetan adibidez. Gazte gehiago sartu behar litzateke EKE n. Garai batez egiturak uzten jakin behar dugu. Nik denak izan nituen, une batez esperientziarik gabekoek sartu behar dutelako, beren utopiekin gauzak aitzinaraz ditzaketelako. Bestela, beti jende berek parte hartzen dute, eta beti erabaki berak hartuko dituzte.

TXANTREKO EUSKALDUN GIROA

Zaripot
OGITARTEKOAK
ETXKO FRIJITUAK
Ezkaba plaza, 7
Tel.: 948 36 30 72

GAZTELU
TABERNA - ERRETEGIA
Gure espezialitatea,
haragia erreta
Federico Soto Pasealekua 3 • TXANTREA
Tel.: 948 12 09 99 • 619 74 43 15
Fax: 948 12 59 55
www.asadorgaztelu.com

TXANTREKO TABERNA
"Hamaika aukera zure eguneroko menua aukeratzeko"
Lesaka kalea, 5
TXANTREA
Jai zoriontsuak!

GAZTELU
OGITARTEKOAK
Afariak
Pintxoak
Ezkaba Plaza. Tel.: 948 07 39 71

UTRPEA TABERNA
• Gosariak
• Hamarretakoak
• Bokatak
Jai zoriontsuak!
Tel.: 948 14 55 12